

Vitoria-Gasteiz • Abenduak / Diciembre • 2022

INMERSIONES XV

Testua / Gorputza / Ahotsa Texto / Cuerpo / Voz

Euskal Herriko artista berrien biltzarra . Congreso de artistas emergentes de Euskal Herria



► www.inmersionesgasteiz.com

KREDITUAK CRÉDITOS

INMERSIONES 2022 ◀

Testua/Gorputza/Ahotsa • Texto/Cuerpo/Voz

EDIZIOA / EDICIÓN ◀

Asociación Cultural **Inmersiones** Kultur Elkartea

KOMISARIOTZA / COMISARIADO ◀

Iker Fidalgo, Irati Irulegi, Laura Díez • Colectivo **Haria** Kolektiboa

PRODUKZIOA / PRODUCCIÓN ◀

Cristina Arrazola-Oñate

IRUDIA, DISEINUA ETA MAKETAZIOA / IMAGEN, DISEÑO Y MAQUETACIÓN ◀

Ibon Sáenz de Olazagoitia

EDUCACCIONES • TAILLERRAK / TALLERES ◀

Iván Gómez

EUSKARRI TEKNIKOA / SOPORTE TÉCNICO ◀

Eneka Aranzabal

SARE SOZIALAK / RRSS ◀

Marieta Vargas

STREAMING ◀

Baicast, S.C.

KATALOGOAREN EDIZIOA / EDICIÓN DEL CATÁLOGO ◀

Iker Fidalgo, Irati Irulegi, Laura Díez • Colectivo **Haria** Kolektiboa

TESTUAK / TEXTOS ◀

Autoreak / Lxs autorxs

ARGAZKIAK / FOTOGRAFÍAS ◀

Maidier Jiménez

ILUSTRAZIOAK / ILUSTRACIONES ◀

Enrique Flores

ITZULPENAK / TRADUCCIONES ◀

Iñaki Lopez de Luzuriaga

INPRENTA / IMPRENTA ◀

DOSBI

ISBN ◀

978-84-09-51729-9

LEGE GORDAILUA / DEPÓSITO LEGAL ◀

LG G 00384-2023

LIZENTZIA / LICENCIA • CREATIVE COMMONS ◀

Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Espainia / Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 4.0 España

Desde colectivo **Haria** queremos agradecer a todo el equipo de Inmersiones que haya contado con nosotras para llevar a cabo esta edición, en especial a Cris por todo el apoyo y la confianza que ha depositado en nosotras. Por otro lado, queremos agradecer a todas las artistas participantes su implicación en la propuesta, juntas hemos disfrutado y aprendido mucho. Igualmente, gracias a Marieta, Maidier, Eneka, Terry, Iñaki, Ibon, Enrique,... por hacer esto posible.

AURKIBIDEA

ÍNDICE

▶ INMERSIONES ZORIONEKO DAGO / INMERSIONES ESTÁ DE CELEBRACIÓN	04
Cristina Arrazola-Oñate & Colectivo Haria Kolektiboa	
▶ LEHENDABIZI TESTU / ANTES TEXTO	08
Colectivo Haria Kolektiboa	
▶ AHOTSAREN BEHARGINAK / OBRERES DE LA VOZ	12
Ixiar Rozas	
▶ LEHENDABIZIKO KARTA / PRIMERA CARTA	16
Iván Gómez • Educaciones	
▶ BITARTEAN AHOTS / DURANTE VOZ	18
Colectivo Haria Kolektiboa	
▶ TRACEY EMIN HARKAITZ BATEKIN EZKONDU ZEN / TRACEY EMIN SE CASÓ CON UNA ROCA	22
María Bastarós	
▶ SHOUT OUT (MENSTRUATION PAINTINGS)	24
Ilanire Sagasti • Partitura sortzaileen lehiaketaren irabazlea / Ganadora del concurso de partituras creativas	
▶ BILTZARRA / CONGRESO	26
• Alexia Sayago • Idazteko leku bat. Arkeologia literarioa / Desde donde escribo. Una arqueología literaria	
• Miriam Inza • Ahoarekin idatzi / Escribir con la boca	
• Gabriel Aparicio • Idatzi eta marraztu / Escribir y dibujar	
• Jonathan Garcia Lana • Ahots tekno-hedatua musika esperientzian / La voz tecno-expandida en la experiencia musical	
• Obrador • Labariak gara / Somos obradoras	
• Dramatic Panda • TMDPE	
• Marion Cruza • MC'MC, maîtresse de cérémonies	
• Ane Berganza • Birkomunikazio II / Recomunicación II	
• Estanis Comella • SXT: Vocanic Hue	
• Gari Arambarri • Muga batengatik / Un límite por	
• Aimar Arriola • Blue Tears [Malko Urdinak] / Blue Tears [Lágrimas azules]	
• Izaro Ieregi • TOUCH ME LOUD	
• Elisa Arteta • Trantsizioak / Transiciones	
• María Salgado • Ekintza: Steiner Lerratua / Acción: Orientada a Stein	
• Txaranga Urretabizkaia • Haize instrumentuak. Bilbo / Instrumentos de viento. Bilbao	
▶ GERO GORPUTZ / DESPUÉS CUERPO	56
Colectivo Haria Kolektiboa	
▶ GIROA / AMBIENTE	60
Maidier Jiménez & Enrique Flores	
▶ INMERSIONES 2008-2022	64
2008tik 2022ra arteko parte-hartzaileen zerrenda / Listado de participantes desde 2008 a 2022	

Inmersiones zorioneko dago Inmersiones está de celebración

Cristina Arrazola-Oñate & Colectivo Haria Kolektiboa



2022. urteko Inmersiones urte osoko lanaren eta ahaleginaren emaitza izan da beti bezala, beste Inmersiones bat gehiago aurrera ateratzen saiatzearen fruitua. Katalogo honetan, ikusiko duzu egun horietan HARIA kolektiboak (Irati Irulegi, Laura Díez e Iker Fidalgo) "Gorputza, testua eta ahotsa" izenburupean garatu zuen programa baten erakusgarri bat. Ondorengo orrietan, testuak, solasaldien laburpenak, ekintzak eta irudiak aurkituko dituzu. Bertan biltzen da ez bakarrik gertatutakoaren erregistroa, baizik eta gertatutakoaren oihartzunaren zati bat.

Gainera, 2022ko abenduan, Inmersionesek 15 urte bete zituen. Artista eta praktika berrien topagunea da. Autokudeaketaren bidez, neguro biltzen da Gasteizen, hazten ari den komunitate bati deialdia egin eta hura elkartzeko gai. Uste dugu baduela meritua haren irtotasun eta temari esker aurrera ateratzeko gai izan den artista batzar honen lana, aitortu beharrekoa; izan ere, uste dugu espazio seguruak behar ditugula, bide eta aitzakia berriei ekiteko lekuak, gu partaide garen ehundura profesionaleko pertsona guztien arteko topaguneak sortzea. Azken batean, osotasun baten partaide sentitzeak zirikatzen gaitu elkarrekin jarraitzera.

Kulturan aritzea eta profesionalizatzea bide gogorra eta, batzuetan, ikusezina da. Inmersiones 15 urte darama hitzordua

La edición del año 2022 ha supuesto, como siempre, el resultado derivado de todo el año de trabajo y esfuerzo constante intentando sacar adelante una nueva entrega. Este catálogo recoge una muestra de lo que sucedió durante aquellos días en los que el colectivo HARIA (Irati Irulegi, Laura Díez e Iker Fidalgo) desarrolló un programa bajo el título "Cuerpo, texto y voz". En las siguientes páginas podremos encontrar textos, resúmenes de charlas, acciones e imágenes que reúnen en una publicación no solo el registro de lo sucedido sino parte de lo que aún resuena.

Pero, además, diciembre de 2022 es la fecha en la que Inmersiones cumplió 15 años. Un encuentro de artistas y prácticas emergentes que desde la autogestión es capaz de convocar a una comunidad en crecimiento que se reúne cada invierno en Gasteiz. Creemos que es necesario reconocer el mérito de un trabajo que gracias a la tenacidad y la tozudez de una asamblea de artistas ha sido capaz de seguir adelante. Pues entendemos que hacen falta espacios seguros, lugares desde los que emprender nuevos caminos y excusas para crear encuentros entre todas aquellas personas que forman parte del tejido profesional del que formamos parte. A fin de cuentas, sentirnos parte de un todo es lo que nos convoca a seguir juntxs.



honetan tematzen, eta erreferente bilakatu da Euskal Herriko eremu artistikoan. Haren misioa izan da erakusketa proiektuak, ponentziak, performanceak edo kontzertuak aurkezteko lan baldintza duinak sustatzea.

Urteurren hau, ordea, atzera begirakoa egiteko abagunea ere bada, utzitako ondarea baloratzeko, eta automatismo batzuk auzitan jartzeko, arreta deitu nahi diogun komunitate horretatik dugun deskonexioa betiketzen dituztenak. Horrexegatik, Inmersionesen 15. urtea genuela eta, Euskal Herriko Artista Berrien Biltzarraren formatua bera berrikusi dugu. Inmersiones elkarteko hiru kidek, Iker Fidalgo, Txelu Balboa eta Cristina Arrazola-Oñatek, gure jardueraren azterketa eta diagnostiko prozesu bat egin dute, eta erantzuna oso gogobetegarria izan da. Gure ekimen xumea euskal artearen panoraman finkatu da, badu tarte bat, ezaguna da, eta aitortua. Eta hobetu daiteke.

Gogoeta batekin hasi ginen, azterketa hori artikulatzeko moduz, eta ondorioztatu genuen egokiena zela inkesta berezi samar bat egitea, hurbila eta erakargarria, eta maitasun handiz moldatu genuen, eta Inmersionesekin modu batera edo bestera harremana izan zuten pertsoneri banatu. Eskerrik asko zuen kolaborazioagatik.

La práctica de la cultura y su profesionalización es un camino duro y a veces incluso invisible. Inmersiones lleva 15 años insistiendo en una cita que ha cumplido una función referente en el ámbito artístico de Euskal Herria y cuya misión ha sido la de propiciar condiciones laborales dignas para la presentación de proyectos expositivos, ponencias, performances o conciertos.

Pero este aniversario es también un momento para echar la vista atrás. Valorar nuestro legado y poner en duda aquellos automatismos que nos anclarían en la desconexión con aquella comunidad a la que precisamente queremos interpelar. Es por esto, que con motivo de la edición número 15 de Inmersiones hemos desarrollado una revisión del propio formato del evento. De la mano de tres miembros de la asociación Inmersiones (Iker Fidalgo, Txelu Balboa y Cristina Arrazola-Oñate) se ha llevado a cabo un proceso de análisis y diagnóstico de nuestra actividad y la respuesta ha sido muy satisfactoria. Nuestra pequeña iniciativa se ha asentado en el panorama del arte vasco, tiene un hueco, es conocida y reconocida. Y también es mejorable.

Empezamos por una reflexión sobre cómo articular este análisis, llegando a la conclusión de que lo más adecuado era realizar una encuesta algo especial, cercana y atractiva, que formulamos con mucho cariño y que distribuimos entre todas las personas que



Inkestako emaitza horiek abiapuntu harturik, elkarrizketa pertsonal batzuk egin genituen pertsona jakin batzuekin, uste baikenuen ikuspegi aberasgarria helaraz ziezaguketela, ezagutzen dituztelako hala Inmersiones nola arte garaikidearen panorama orokorra. Eskerrik asko jende horri guztiari ere.

Geroago, eztabaida laborategi bat antolatu genuen, Inmersionesekin askotariko harremanak izan dituzten hainbat kultura-eragilerekin "Inmersiones ereduaz" gogoeta egiteko eta ikuspegi berriak guri helarazteko. Batzuk ohiko parte-hartzaileak ziren eta, beste batzuk, berriz, biltzarra ezagutu ere egiten ez zuten pertsonak. Eskerrik asko, benetan, zuen eskuzabaltasunagatik.

Egun, denok jarraitzen dugu Inmersiones hobetzeko lanean, eskerrik asko zinez denoi zuen ekarpenagatik eta denboragatik, izan gizonezko, emakumezko edo bestelako.

Bereziki eskertu nahi diegu pazientzia inkesta egin eta "hirugarren maila" deitu dugun horretaraino sakondu zutenei: urpekaritza saio luzea, itsaso zakarra eta misterioz jositakoa itsas hondoa.

Amaia Asategui Ituralde, Julen Agirre Egibar, Izaro Sola Gaintza, Amaia Molinet, Urtzi Ibarquen, Uxue Ruiz de Arcaute, Enrique Flores, Saioa Oamo, Iñaki Larrimbe, Roberto de Miguel, Pablo Milicua, Mikel Sarmiento, Laura Díez, Alejandra Bueno, Luis Angel Abad, Álvaro Aroca, Fermín Díez de Ulzurrun, Mawa, Arantza Lauzirika, Liam Macdonnell, Karlos Martínez Bordoy, Arturo Cancio, Joan Rodríguez, Jorge Luis Marzo, Fito Rodríguez.

Inmersionesek 15 urte bete ditu, eta ez dakigu zenbat gehiago beteko dituen. Guk, hurrengo Inmersiones arte, txintxin egingo dugu gure familia handiko partaide zareten pertsona guztien alde.

Topa!

habían estado relacionadas con Inmersiones de una u otra manera. Gracias por vuestra colaboración.

A partir de los resultados de esta encuesta desarrollamos algunas entrevistas personales con personas que considerábamos podrían aportar una visión enriquecedora por su conocimiento tanto del evento como del panorama del arte contemporáneo en general. Gracias también a toda esta gente.

Más adelante organizamos un laboratorio de debate en el que se reflexionó sobre el "modelo Inmersiones" con diferentes agentes culturales que nos aportasen nuevas perspectivas y que tuvieran distintos grados de relación con Inmersiones, desde participantes recurrentes hasta personas que no conocían el evento. Gracias de veras por vuestra generosidad.

Hoy seguimos trabajando en mejorar Inmersiones, gracias sinceramente a todos, todas, todes, todxs, por vuestras aportaciones y por vuestro tiempo.

Queremos agradecer especialmente su paciencia a las personas que hicieron la encuesta y profundizaron hasta lo que denominamos "el tercer nivel": una sesión de buceo larga, un mar embravecido y un fondo marino plagado de misterios.

Amaia Asategui Ituralde, Julen Agirre Egibar, Izaro Sola Gaintza, Amaia Molinet, Urtzi Ibarquen, Uxue Ruiz de Arcaute, Enrique Flores, Saioa Olmo, Iñaki Larrimbe, Roberto de Miguel, Pablo Milicua, Mikel Sarmiento, Laura Díez, Alejandra Bueno, Luis Angel Abad, Álvaro Aroca, Fermín Díez de Ulzurrun, Mawa, Arantza Lauzirika, Liam Macdonnell, Karlos Martínez Bordoy, Arturo Cancio, Joan Rodríguez, Jorge Luis Marzo, Fito Rodríguez.

Inmersiones ha cumplido 15 años y no sabemos cuántos más podrá cumplir. Pero hasta la próxima cita, brindamos por todas y cada una de las personas que formáis parte de nuestra gran familia.

¡Salud!



LEHENDABIZI TESTU

Bidaide eta adiskide maiteak,

Idatzi zenigunean, asko poztu ninduen gonbidapenak. Ilusio berezia egiten zidan Inmersionesko familiako kide izateak, nire hastapenetan hor aurkeztu ahal izan baintuen garatzen ari nintzen proiektuak. Oraindik ere, ondo gogoan dut orduko nire ahots ezjakin eta ikaratia. Oraindik ere, batzuetan orduko neska dudatsua naiz. Aitor dezadan gonbidapen hau heltzean dudak sortu zitzaizkidala orduko nire bizi ataka dela eta; beharbada ez nintzen kapaz izango konpromisoari heltzeko. Asko erakartzen ninduen Hariatik egiten ari garen komisariora kolektiboari jarraipena emateak; 3 ahots uztarturik elkarri adierazten, elkar ulertzen eta batez ere elkarren babesle. Montehermoso kulturunean egin genuen "Desharitzea. Testua adierazpen-leku" proposamenean hasi ginenean testuari buruz lanean, eta gaur aztertzen dugu nola ahotsak eta gorputzak idazketa zeharkatzen duten.

Inmersiones aukera ederra suertatu zitzaigun arte praktika batzuen bateratze lana egiteko eta horiek partekatzeko, praktika hauexena zehazki: gure gorputz dibertso, propio, politiko eta libreen bitartez, hitz mintzatua, adierazia, idatzia edo oihukatua estekatzen dituztenak. Testua, gorputza eta ahotsa, elkarrekin komunikatzeko eta harremanetan jartzeko erabiltzen ditugun tresnak dira, eta testuinguru honetan gogoeta gai bihurtuko zaizkigu. Nola jartzen dira harremanetan eta zein ahalmen dituzte transmititzeko, kontatzeko, narratzeko edo adierazteko orduan?

Gure arteko elkarrizketetan hastean, bizitzak bere bidea egin zuen, gure lan prozesuak aldatu ziren, eta ni denbora batez ez nintzen agertu. Orain etzanik idazten dizuet, eta leihoari begira. Aldi berean, nire burura heltzen diren ahots batzuk entzuten ditut, gero eta zailagoa zait kontzentratzea eta testu formatuan nire ideiak hezurramitzea. Buruan dabilzkidan elementuak, agertzen diren oroitzapenak eta esperientziak, batzuk distrakzio eta enbarazu, eta beste batzuk jarraitzeko lagungarri. Idazketa beti dago kontaktu puntu batean. Marruskatuz dator idazketa, bat, bi edo hiru eskuren bidez, ordenagailua tekleatuz, edo ohar koaderno bateko boligrafoaren bidez. Atzamarrak elkarrekin marruskatuz, tinta marruskatuz...

Gaur, nire tartekako idazketari heldu diot berriz, elkar zeharkatzen duten hamaika kinka eta pentsamenduren bidegurutzetik. Esku batez, nire alaba eutsi, eta besteaz idatzi, aurreko egunean mugikorrean idatzi nituen oharretan oinarrituz. Oso zaila edo ia ezinezko egiten zait paragrafo bat segidan idaztea, joan eta etorri, jauzika, maiuskulak eta koloreak erabiltzen ditut, eta hamaika akats egin, hainbat formatu eta gailu erabiliz, apurka-apurka guztiari batasuna eta gorputza emateko eginahalean. Gaur gaurkoz, horiek ditut erritmoak.

Laster arte, besarkada handia.

Laura

Kaixo adiskideak,

Zer moduz? Dena ondo doalakoan. Irailetik gaur arte, denbora azkar-azkar doa aurrera. Ez dakit berdin ote zabilzaten, baina lauso dut burua, hilabete hauetako datak eta oroitzapenak nahasiz.

Aldi berean hurbila eta urruna zait zuei gutun hau idaztea. Gogoan dut fito eta Crisen deia, proposatu Hariak har zezala bere gain Inmersionesko komisario lana. Pixka bat bitxia egin zait: badakizuenez, Inmersionesko batzarreko partaide izan naiz urte batzuetatik hona, eta barruaren eta kanpoaren artean erdibidean egotea bezalakoa zen.

Alde horretatik, bazen aurtengo Inmersiones berezi egiten zuen beste elementu bat: Inmersionesek hamabost urte beteko zituen. Hastapenetik, borroka batean aritu da aldi bakoitzean, espazioak eta kolaborazioak bilatuz aurrera ateratzeko. Niretzat berezia da, eragile "berri" gisa hurbildu nintzelako Inmersionesera. Nire probaleku bihurtu zen, espazio seguru bat urteen buruan antzeko jendea ezagutzen joateko, formatuak eta ekimenak esperimintatuz. Laura, gogoan dut 2012. urtekoan elkarrekin suertatu ginela zu eta biok, gure lana aurkezten, eta artean ez genuen elkar ezagutzen, gogoratzen?

Esan nahi dut niretzat aurtengoak bazuela halako ukitu hunkigarriago bat. Horregatik, taldean egitea proposatu zigutenean, iruditu zitzaidan horixe zela Inmersiones zutitzeko era onena. Kolektibo bat beste kolektibo baten barruan. Gu bezala, alegia, beste familia batzuek osatutako familia txiki bat. Elkarrekin lanean hasi ginenean bezalaxe, badira jada zazpi urte.

"Testua, gorputza eta ahotsa"k bazuen marko bat, eta adierazi ditugun kontzeptuak elkar gurutzatu eta desegiten ziren bertan. Ez da zerbait estatikoa, eta bihurritu egin daiteke, eta forma berri bat eman. Gogokoa dut pentsatzea zehaztu gabearen eremu horretan datzala Hariako gure praktika. Balio digulako gauzak egiteko manera mantsoari erreparatu eta eusteko.

Muxu handi bat zuei.

Iker

Maiteak,

A ze poza zuek irakurtzea.

Nekez gogoratzen dut bidaia honen hasiera, oroitzapen lausoak dira, sentsazio moduko batzuk bihurtuak, eta ezer-gutxi ekar dezaket hitzetara. Zuei irakurriz, ordea, nire burua ikusi dut idazketan utzi dituzuen puntu eta parteak betetzen.

Inmersionesko zuen hurbiltasuna nire distantzia zen, eta zuen emozioa, berriz, nire segurtasun falta. Bitxia bada ere, zuen eskuari helduta gonbidapen hau onartzean, bizipenak guztionak bihurtzen ziren eta hiruron arteko irute lanak gure aurreikuspenak, desirak eta beldurrak elikatu zituen. Hala izanagatik ere, argi dago hasieran kosta egin zitzaidala elkarrizketetan nire burua ikustea, edo hori sentitzen nuen nik, bederen. Pentsatzen dut horretan uneko bizi atakak ere izan zuela zerikusirik: justu une horretan, kontziliazio gaiekin borrokan hasi berria nintzen.

Bitxia da nola gorputza eta pentsamenduak hain erritmo desberdinetan joan daitezkeen. Eskerrak zuek zeundeten... Sentitu nuen Biltzarra prestatzen hasteko pentsamendu espazioak partekatzea jauzi egiteko abiadura hartzea bezalakoa zela.

Lasaitzen ninduen gure arteko konfiantzak, irmo sinetsita nengoen badakigula gure denborak identifikatzen, badakigula helduko garela, eta errespetuz egingo dugula, elkarri babesa emanez. Halaxe izan zen hasieratik, oso argi izan genuen garrantzizkoa zela elkar onartzea eta entzutea. Gure metodologia estimatuena: elkarrekin egotea.

Testua, ahotsa eta gorputzaren proposamena natural atera zen, pertsona maite askorekin izan genituen elkarrizketei jarraipena emateko denek sentitu genuen gogo bat. Ahots horien artean ziren Aimar, Sonia, Alberto, Munts, Maria, Fito, Leire, Ángel, Oihane, Remedios... Jakituria horiek batzeko, biltzeko asmoz, zerrindak egiten hasi ginen, gonbidatuta etor zitezkeenen, kontzeptuen, bizipenen, desiren... zerrindak, gure sei eskuko idazketa nahasiz, irakur zitezkeen zerbaiti forma emanez. Esan behar da produkzioan Cris bidelagun izatea ezinbestekoa izan zela aurrera egin, atzera egin, duda egin eta berriz aurrera egiteko.

Hitz egingo dugu egunotan, besarkadak.

Irati

ANTES TEXTO

Hola queridas compañeras y amigas,

Cuando nos escribiste me alegró mucho la invitación, me hacía especial ilusión ser parte de la gran familia de Inmersiones porque en mis inicios fue el primer lugar donde pude presentar los proyectos que desarrollaba. Todavía resuena en mi esa inexperta y temblorosa voz. A veces todavía soy aquella chica insegura. Debo confesar que recibir esta invitación me generaba dudas por el momento vital que vivía, quizás no fuera capaz de asumir el compromiso. Me atraía mucho la idea de dar continuidad al comisariado colectivo que desde Haria estamos llevando a cabo, 3 voces corales que se hacen entender, se comprenden y sobre todo se apoyan. Empezamos a trabajar en torno al texto en la propuesta que realizamos en el centro cultural Montehermoso "Deshilar. El texto como lugar de enunciación", y hoy, nos planteamos como la escritura es atravesada por la voz y el cuerpo.

Inmersiones se nos presentó como una oportunidad para poner en común y compartir aquellas prácticas artísticas que vinculan la palabra hablada, enunciada, escrita o gritada a través de nuestros cuerpos, diversos, propios, políticos y libres. El texto, el cuerpo y la voz, son herramientas que usamos para comunicarnos o relacionarnos y en este contexto se convierten en objeto de reflexión. Cómo se interrelacionan y cuáles son sus potencialidades a la hora de transmitir, de contar, de narrar o de expresar.

Durante el inicio de nuestras conversaciones la vida se abrió camino, modificó nuestros procesos de trabajo y yo me ausenté durante un tiempo. Ahora os escribo tumbada y mirando hacia la ventana. A la vez oigo algunas voces que se filtran en mi cabeza, cada vez me cuesta más concentrarme y plasmar en formato texto mis ideas. Elementos que resuenan, recuerdos y experiencias que aparecen, algunas distraen y molestan y otras, ayudan a dar continuidad. La escritura siempre está en una zona de contacto, la escritura desde el roce, a una, dos o tres manos, desde el tecleo en el ordenador al bolígrafo en un cuaderno de notas. Roces de dedos, roces de tinta...

Hoy retomo mi escritura intermitente desde la intersección de mil situaciones y pensamientos que se cruzan. Mientras con una mano sujeto a mi hija con la otra escribo en base a notas que apunté el otro día en mi móvil. Me resulta muy difícil o casi imposible escribir un párrafo de continuo, voy y vengo, salto, uso mayúsculas, colores y mil errores me acompañan, diferentes formatos y dispositivos que poco a poco intentan dar una unidad y un cuerpo a todo aquello, estos son los ritmos actualmente.

Nos vemos pronto, un fuerte abrazo.

Laura

Kaixo amigas.

¿Qué tal? Espero que todo esté bien. Desde septiembre hasta ahora, el tiempo está pasando muy rápido. No sé si os sucede lo mismo pero tengo una nube mental que mezcla fechas y recuerdos de estos meses.

Se me hace cercano y lejano a la vez escribiros esta carta. Recuerdo la llamada de Fito y de Cris proponiendo que Haría asumiera el comisariado de este Inmersiones. Era un poco extraño para mí pues como sabéis, he sido parte de la asamblea de Inmersiones desde hace unos años y era como estar a medio camino entre dentro y fuera.

En este sentido hubo otro ingrediente que hacía de esta edición algo especial. Inmersiones cumplía quince años. Desde sus inicios ha ido peleando por cada nueva entrega, buscando espacios y colaboraciones para sobrevivir. Para mí es especial, porque yo me acerqué a Inmersiones como agente "emergente". Fue mi campo de pruebas, mi espacio seguro para durante varios años ir conociendo gente afín, experimentando formatos e iniciativas. Laura, recuerdo que tu y yo coincidimos en el año 2012 presentando nuestro trabajo y aún no nos conocíamos, ¿te acuerdas?

Lo que os quiero decir es que este año tenía para mí una carga emocional añadida. Es por eso que cuando nos propusieron hacerlo como colectivo me pareció que era la mejor manera de ponerlo en pie. Un colectivo dentro de un colectivo. Como nosotras que somos una pequeña familia compuesta de otras familias. Igual que cuando empezamos a trabajar juntas hace ya siete años.

"Texto, cuerpo y voz" planteaba un marco donde se entrecruzan y se disuelven los conceptos que enunciamos. Algo que no es estático y que se puede retorcer para dar una nueva forma. Me gusta pensar que es en ese terreno de lo no concreto donde habita nuestra práctica como Haría. Pues nos permite cuidar y conservar una manera lenta de hacer las cosas.

Os mando un beso fuerte.

Iker

Queridas,

Qué alegría leerlos.

El comienzo de este viaje lo recuerdo vagamente, son memorias borrosas que casi se han convertido en sensaciones que poco puedo traducir en palabras. Pero leyéndooos me encuentro a mí misma rellenando los puntos y apartes que dejáis en vuestra escritura.

Vuestra cercanía a Inmersiones, era mi distancia y vuestra emoción, mi inseguridad. Como un contrapunto extraño, aceptar esta invitación cogida de vuestra mano hacía que las vivencias fueran comunes y que el entretejer de las tres equilibrara nuestras expectativas, deseos y miedos. Aún así, claro está, que al comienzo me costó encontrarme en las conversaciones, o al menos así lo sentía yo. Supongo que también tuvo que ver el momento vital, justo en esos momentos estaba empezando a hacer malabares con la conciliación.

Es curioso cómo el cuerpo y los pensamientos pueden ir a ritmos tan diferentes, menos mal que estabais vosotras..., sentí que al compartir espacios de pensamiento para empezar a elaborar el congreso era como coger impulso para saltar.

Me tranquilizaba la confianza entre nosotras, tenía la convicción de que sabemos reconocer nuestros tiempos, que sabemos que llegaremos y que lo haremos con respeto, apoyándonos unas a otras. Fue así desde el inicio, tuvimos muy claro que el reconocernos y escucharnos era algo importante. Nuestra metodología más apreciada, estar juntas.

Texto, voz y cuerpo fue una propuesta que salió de manera natural, una apetencia que sentimos todas para dar continuidad a conversaciones compartidas con muchas personas queridas. Voces como la de Aimar, Sonia, Alberto, Munts, María, Fito, Leire, Ángel, Oihane, Remedios... Con la intención de reunir, recolectar estos saberes empezamos a hacer listas, listas de posibles invitades, de conceptos, vivencias, deseos..., mezclando nuestra escritura a seis manos, dándole forma a algo legible. Hay que decir que el acompañamiento de Cris en la producción fue clave para avanzar, retroceder, dudar y avanzar otra vez.

Hablamos estos días, abrazos.

Irati

Ahotsaren beharginak

Ixiar Rozas

1.

Oinez ibili naiz, bakarrik eta lagunduta.

Batzuetan era batera, bestetan bestera.

Idaztea da ahotsak bidelagun izatea.

Haiek entzutea. Haiek ukitzea. Soinuaraztea. Eta irakurtzea haiek esatea da. Eta ukitzea. Eta soinuaztea. Eta erresonantzia. Eta haiek berriz entzutea.

2.

Erritmoa behatu. Eta arnasa. Hor. Uhin horretan.

Mugimendu bat, eteten ez den behaketa prozesu bat, bizitzari, amiltzen ari den mundu bati lotua.

Eta leku iragankor horretan, nire gorputza eta gogamena aldatzen direla behatzen dut. Uneoro. Behatzen ditut mugimendu nimen horiek, ia hautemanezinak, eta haien kontzientzia hartzen.

Mugimendu horiek soinua dira aldi berean. Soinua egitea, geu soinu bihurtzea.

Soinua, mugiezinen lehendabiziko mugimendua da, beharbada materiarena. Eta dena eraldatzen du.

Hots bakoitza, autobiografia une bat. Haren entzutea findu.

3.

Ahotik irteten den airea.

Isilunetik jaiotzen da, eta horretara itzultzen da. Irten eta entzungai egiten den airea.

Arnasa nolakoa gure soinua halakoa. Askatzen den hots bat, hitz izatera heldu gabe. Dardarti, zikliko. Oihartzun mugagabea. Zarata bat. Kraska hautemanezin hori.

Gero, berriz, hitza askatu, eta espazio bihurtu.

Aireak entzungai bihurtzen du bizitza. Mugimendua da, hatsa, arnasa, arnasketa, gure gorputza bezala. Eterra, espazioa, espantsio eta uzkuete lekua, bizi mugimendua. Kosmosean, gorputzetan, gorputzen artean. Bizitzan, sexualitatean, heriotzan.

Hortaz jabetu, eta hedatu, gorputzetik beretik.

Hori potentzia handia dugu, ez baita neurrigabearen berdina. Gure izate auto-poietikoa. Garena eta uneoro ekoitz eta beha dezakeguna, eta beti mugimenduan dena.

4.

Ahotsa gorputz batetik bestera doa. Gorputz artekoa da. Ahotsa askatzean, izan bide artikulazio soil, sonema, fonema, hots, hitz, kantu, aldarri.

5.

Egun hauek heltzearen den bihozkada baten hutsunea dira.

Gure gorputzean beste gorputz batzuk bizi dira, aurreko gorputzak, eta gerokoak. Halaxe ere gure ahotsetan, iraganeko ahotsak, eta etorkizunak. Entzun ditugunak, eta zeharkatu gaituztenak. Askatu ditugunak, eta beste gorputz batzuetan sartzeko balio izan digutenak. Askatzen ditugunak, eta beste batzuetan sarraraziko gaituztenak.

Gure bibrazioak baldintzatzen du besteek nola hautematen gaituzten.

Gorputzketasuna.

Beste hizkuntza batzuetan, lehendabizikoak eta gure ahoetako dermisari itsasten joan direnak. Beste hots, erresonantzia, ekolalia batzuetan, galdu genituenak eta eskuratzen goazenak. Gure erabakiz edo gizarte konstruktoz.

6.

Ezaguna zaigu eta besteen ezagun egiten gaitu. Entzuten gaitu, eta entzunarazten gaitu. Ahotsa arnas hutsa da, gorputza, materia. Materiala denaren luzapen ez-materiala da. Ahots teknologikoa ere, makina batetik sortu edo ez, materiala da. Bada, biak ere, giza eta teknologia ahotsa, agertzean, soinu uhin bilakatzen dira, bibrazioa. Erresonantzia dute, hor jarraitzen dute, partikulak desegin eta materia galtzen diren bitartean.

Espaziora ireki. Soinua denez, ahotsa mugitu egiten da, eta espazio bilakatu. Gure izate barnekoena da, jiraka dabilkigun arnasa, espazialtasun bilakatzen da. Eta irekiera horretan, ahots entzuten dugu, ukitu, eta berriz materializatzen.

Bada, ahotsa etengabe doa materialtasunetik ez-materialera. Ukigarritik ukiezinera. Batetik bestera doa.

Barnetasuna eta irekiera. Gure barnetasuna da eta, aldi berean, besterekin harremanetan jartzen gaitu. Ahotsa parerik gabea eta harremanezkoa da eta, hala ere, paregabeak ez du esan nahi mugiezina denik. Ahotsaren barnetasunak ematen diguna, harremanetan jartzeko aukera, mutatu egiten da, aldatu, eraldatu, gure bizitzen joanean. Subjektu berezi egiten gaitu, subjektibazio prozesuetarako ainguratze.

Hemen ahots esatea arnasketa behatzea da.

Uneoro nola arnasa hartzen dudana, hots bat askatu edo ez.

7.

Goizeko lainoa, hezea, basoan. Mendietan behera dator.

Isilunetik jaiotzen da, eta horretara itzultzen da. Hor konposatzen da.

Hemen ahotsa esatea gorputza(z) hitz egitea da. Gorputz energia bat, saretua, txirikordatua, lurralde, lur, humus, konpost, kon-post.

Gorputzasun inklinatua da, haren *vulnusetik* biluztua, non nia (egoikoa) bere baitatik kanporatzen baita.

8.

Ahotsaren behargin bat zara, esan dit adiskide batek.

Ahotsaren beharginak gara, esan diot.

Ahots bat bere hotsak entzun eta elkarren mendekoak diren izaki guztien lengoia hitz egitea bilatzen duena; ezer ez ikustekorik bere ama hizkuntzaren tinbrea bakarrik entzun eta hari atxikirik geratzen den ahotsarekin, lurralde bakarrean.

Orain, eratu nauten bi hizkuntzetako batean ari naiz idazten eta, hitz eta hots bakoitzean, besteak, bihotzean bizi denak, zeharkatzen du.

Hizkuntzen artean idazten dut, haien erritmoen artean. Materialak elkarrekin jartzen ditut, eta haien konposizioak itxaroten, ehunak, hartzidurak, deskonposizioak.

9.

Ahotsaren soinua erreklamatzeko ahotsari haren tinbre guztiak, bibrazioak eta arnasketaren itzultzea da, identitate itxia gaituzte. Hartara, ahotsari dagokiona ematen zaio, gure espazioan (norbere barnekoa izaten jarrai dezakeena) eta espazio publikoan (beharbada jada publiko izandakoan).

Deialdia egin, ahots-ekin, ahotsari kendutakoa itzultzeko.

10.

Ahotsa soinua da eta irudi bihur daiteke. Soinu uhinek irudiak sortzen dituzte gure gogamenean, norbere barnekoak eta bakanak ere badirenak. Eta harremanetan jartzen gaituzte entzun eta ikusitakoarekin. Irudiak mugitu egiten dira, mugitzen gaituzte, mugitzen diren *soinuirudiak* dira.

Materia soinua ere bada. Memorian, orainaldian, irudimenean.

Soinutik irudira eta iruditik soinura. Haren erritmoetatik: irudiak. Erritmoa eta irudiak gizateriaren sustraien zati dira. Dirudienez, materiaren jarduerak dakarren oszilazio batek eratu du dena.

Arnasketa, hatsa, soinua, mugimendua. Energia sortzeko erak dira.

Dena dardara batean, gure gorputzetan eta gure gorputzak abiapuntu, elkar zeharkatuak, espezie artekoak direnak.

11.

Ahots bat batzuetan testuala eta ahozkoa da aldi berean, nahiz eta idatzirik heldu, eta bertan entzuten da ez bakarrik lengoaiaren materialtasuna, hitzen sonoritatea edo ahotsaren alea. Ahots testual horretan, gainera, ahotsaren batasuna entzun dezakegu, esanahia gaituzte duena, gorputzari ihes egiten diona eta beste gorputz bakanekin harremanetan jartzen dena.

Lengoaiak hitz egiten du. Ahozkotasunak gorputza zolitzen du.

Entzutean, hizkuntza ikusten dugu.

Entzuketaren, ukimenaren, memoriaren, irudimenaren bidez entzuten dugu ikusten duguna.

12.

Idazketa behaketa ekintza da. Eta kontzientziaren topografia bat. Eta gogamenak gainazalean duen jarduera behatu eta entzuten du. Eta horregatik, *soinuhitz* paisaia aberats bat izan daiteke.

Demagun poetika dela norbere idazketa praktikaren miaketa. Idazten ari naizen horren eta idazteko moduaren miaketa.

Demagun poetika dela gizarte egoera eta estetika: forma, edukia, kon-posizioa, kon-posta pentsatzea.

Demagun idazketa dela hitzek, ahotsek eta hotsek eratzen duten substratuan hazten eta hartzitzen diren materialen konposizioa.

13.

Ahotsa substratu bat da. Soinu leku bat prestatzen du, eta bertan zentzua umotzen joaten da, beharbada esan ere egingo dena.

Eta hortik, ahotsa beti eraldatzen da.

Isurtzen den ura.

14.

Ahotsak ezin du ezer, egin behar da: soinuaz behar dugu. Haren sonema guztiak berreskuratuz, fonemak – lengoaiaren sistemakoak diren neurrian – gaituzte.

15.

Gorputz osoa da beharrezkoa lengoaiak eta erritmoak potentzia izan dezaten. Ezin da gorputzik gabe idatzi. Ezin da, baldin eta idazketak eta pentsamenduak arnasa

hartzeko, eta lengoaiak hitz egitea nahi badugu. Arnasa hitz bakoitzaren artean eta atzean. Eta arnasa hartzen duen beste gorputz horrek idazketa entzun eta esan egiten du.

Testu bat da gorputzak lengoaiari egiten diona.

Testu batek gorputzak lengoaiari egiten diona dezake.

Testu batek ez dezake ezer, egin behar da.

16.

Entzutea da norbera distantziaz hurbil kokatzea.

Gorputzak inklinazio egokia izatea.

17.

Norbaitek esan zuen pentsamendua tinpanizatu egin behar dela.

Antza denez, pentsamenduak galdu egin du arnasketa, erritmoa, eta jada ezin da entzun, ikusi besterik ez. Beharbada hori ere ez. Edo are, gure interesaren arabera identifikatu edo hezurramitu edo atzematen da.

«0000000000» esan, ahotik, hitzen erritmotik, horien soinuirudietatik ateratzen den soinu adierazpena behatuz, beste gauza bat bihurtu arte. Demagun erritmoa dela soinuaren, hitzen eta irudien ezinbesteko osagaia.

Beste entzuketa inklinatu bati «0000000000000000» esan. Lengoaiari eta hitz urrunduen aukerari heldu, hitza bere hasierako esanahitik gero eta gehiago arrotzu denean. Hitza soinuazte, are gehiago arrotzu arte, eta haren alde biluzienez eta salbaienez berriz entzutea.

18.

Erritmoaren poetika, bizitzak, erritmoak, ahotsak, poemak, etikak, politikak darabilten borroka.

Ahotsa bere bakantasunean eta erlazionalitatean, bere soinu gorputzean birpentsatzea, hitzaren eta politikaren arteko harremana astintzeko funtsezko keinu gisa, ahots horren, entzuketa horren, etorkizun den horren zabaltze potentzia gisa.

Hor bada entzuteko eta bizia izateko hots bat, ukigarria, izaki guztientzat.

Ixiar Rozas Elizalde

Sonar la voz. 9 ensayos y 9 partituras
(Consonni, 2022) liburuko zati hartzituen bidez kon-posatua.

Obreros de la voz

Ixiar Rozas

1.

He caminado sola y acompañada.
A veces una, a veces otra.

Escribir es acompañarse de las voces de unas y otras. Escucharlas. Tocarlas. Sonarlas. Y leer es decirlas. Y tocarlas. Y sonarlas. Y resonarlas. Y volver a escucharlas.

2.

La atención en el ritmo. Y en la respiración. Ahí. En esa onda.

Un movimiento, un proceso de observación que no cesa, ligado a la vida, a un mundo en mutación que se precipita.

Y en ese lugar evanescente, observo cómo cambian mi cuerpo y mi mente. Cada instante. Esos movimientos minúsculos, casi imperceptibles, para tomar conciencia de ellos.

Movimientos que son a su vez sonido. Hacer sonido, hacernos sonido.

El sonido, primer movimiento de lo inmóvil, tal vez de la materia. Y todo lo transforma.

Cada sonido, un instante de autobiografía. Afinar su escucha.

3.

Aire que sale de la boca.

Nace del silencio y a él vuelve. Aire que sale y se hace audible.

Sonamos como respiramos. Un sonido que emana sin llegar a ser palabra. Vibrante, cíclico. Un eco indefinido. Un ruido. Ese chasquido imperceptible.

Y luego, emitir una palabra y hacerla espacio.

El aire permite que la vida sea audible. Es movimiento, al igual que el aliento, el hálito,

la respiración, nuestro cuerpo. Y el éter, el espacio, lugar de expansión y contracción, movimiento vital. En el cosmos, en los cuerpos, entre los cuerpos. En la vida, en la sexualidad, en la muerte.

Tomar conciencia de ello y expandirlo desde el propio cuerpo.

Es nuestro gran potencial, que no es lo mismo que desmesura. Nuestro ser autopoyético. Lo que somos y podemos producir y observar en cada instante y está siempre en movimiento.

4.

La voz pasa de un cuerpo a otro. Es entre cuerpos. En su emisión, sea mera articulación, sonema, fonema, sonido, palabra, canto, clamor.

5.

Estos días son el hueco de un presentimiento que está por llegar.

En nuestro cuerpo habitan otros cuerpos, los cuerpos anteriores y los posteriores. También en nuestras voces, las pasadas y las que vendrán. Las que hemos escuchado y nos han atravesado. Las que hemos emitido y nos han permitido entrar en otros cuerpos. Las que emitimos y nos harán entrar en otros.

La vibración que emitimos condiciona cómo nos perciben.

Co-corporalidad.

En otras lenguas, las primeras y las que se han ido adhiriendo en la dermis de nuestras bocas. En otros sonidos, resonancias, ecolalias, los que perdimos y los que vamos aprehendiendo. Por decisión propia o por constructo social.

6.

Nos suena y nos hace sonar. Nos escucha y nos hace escuchar. La voz es pura respiración, cuerpo, materia. Extensión inmaterial de lo material. También la voz tecnológica, emerja o no de una máquina, es material. Y ambas, la voz humana y la tecnológica, al brotar, se convierten en ondas sonoras, en vibración. Resuenan, siguen ahí, mientras las partículas se disuelven e inmaterializan.

Apertura al espacio. Al ser sonido, la voz se mueve y se hace espacio. Nuestro ser más íntimo, el hálito que nos resuena, deviene espacialidad. Y en esa apertura, la escuchamos, la tocamos, y volvemos a materializarla.

Así, la voz pasa continuamente de lo material a lo inmaterial. De lo tangible a lo intangible. Transita entre una y otra.

Intimidad y apertura. Es nuestra intimidad y, a su vez, lo que nos pone en relación con. Es única y relacional y, sin embargo, única no significa que sea inamovible. Lo que nos da la intimidad de la voz, la posibilidad de relacionarnos, muta, cambia y se transforma a lo largo de nuestras vidas. Nos hace sujetos singulares, un anclaje para procesos de subjetivación.

Decir aquí la voz es observar la respiración.

Cómo respiro en cada instante, emita sonido o no.

7.

La niebla de la mañana, húmeda, en el bosque. Baja desde los montes.

Nace del silencio y a él vuelve. Ahí se compone.

Decir aquí la voz es hablar —sobre— el cuerpo. Un cuerpo energía, entretreído, entrelazamiento, territorio, tierra, humus, compost, com-post.

Una corporalidad inclinada, expuesta desde su *vulnus*, en el que el yo —egoico— se expulsa fuera de sí.

8.

Eres una obrera de la voz, me dice un amigo.

Somos obreros de la voz, le digo.

Una voz que escucha sus sonidos y busca hablar el lenguaje de todos los seres, interdependientes, y nada tiene que ver con la que solo escucha el timbre de su idioma materno y queda apegado a él, en un territorio único.

Escribo ahora en uno de los dos idiomas que me ha conformado, y está atravesado, en cada palabra y sonido, por el otro, el que habita el corazón.

Escribo entre lenguas, entre sus ritmos. Pongo materiales juntos y espero sus com-posiciones, tejidos, fermentaciones, descomposiciones.

9.

Reclamar el sonido de la voz es devolverle todos sus timbres, las vibraciones y espesuras de la respiración, más allá de la identidad clausurante. Es dar a la voz lo que le pertenece, en nuestro espacio —que puede seguir siendo íntimo— y en el espacio público —tal vez ya expúblico—.

Convocar, con-voces, para que retorne a la voz lo arrebatado.

10.

La voz es sonido y puede devenir imagen. Las ondas sonoras generan imágenes en nuestra mente, que son también íntimas y singulares. Y nos ponen en relación con lo que hemos escuchado y visto. Las imágenes se mueven, nos mueven, son *sonoimágenes* en movimiento.

También la materia es sonido. En la memoria, en el presente, en la imaginación.

Del sonido a la imagen y de la imagen al sonido. De sus ritmos, sus imágenes. El ritmo y las imágenes forman parte de las raíces de la humanidad. Al parecer, todo está configurado por una oscilación que responde a la actividad de la materia.

La respiración, el aliento, el sonido, el movimiento. Formas de generación de energía.

Todo vibra en y desde nuestros cuerpos, inter penetrados, inter especies.

11.

Una voz que a veces es textual y oral a la vez, aunque llegue por escrito, en la que se escucha no solo la materialidad del lenguaje, la sonoridad de las palabras o el grano de la voz. En esa voz textual también podemos escuchar la unicidad de una voz que excede al significado, escapa al cuerpo y entra en relación con otros cuerpos singulares.

El lenguaje habla. La oralidad pone el cuerpo a la escucha.

Al escuchar visionamos la lengua.

Vemos lo que oímos a través de la escucha, el tacto, la memoria, la imaginación.

12.

La escritura como un acto de observación. Y una topografía de la consciencia. Y la mente observa y escucha la actividad que hay en su superficie. Y por eso puede ser un rico paisaje *sonoroverbal*.

La poética entendida como escrutinio de la propia práctica de la escritura. De qué y cómo estoy escribiendo.

Poética como situación social y estética: pensar la forma, el contenido, la composición, com-post.

La escritura como composición de materiales que crecen y fermentan en el sustrato que conforman las palabras, sus voces y sus sonidos.

13.

La voz es un sustrato. Prepara un lugar sonoro en el que el sentido se va conformando y, tal vez, será dicho.

Y desde ahí, siempre se transforma.

Agua que fluye.

14.

La voz no puede nada, hay que hacerla: hay que sonarla. Recuperando todos sus sonemas, ir más allá de sus fonemas —que pertenecen al sistema del lenguaje—.

15.

Todo el cuerpo es necesario para que haya potencia del lenguaje y del ritmo. No es posible escribir sin el cuerpo. No es posible si queremos que la escritura y su pensamiento respiren. Y el lenguaje hable. La respiración entre y tras cada palabra. Y ese otro cuerpo que respira escucha y dice la escritura.

Un texto es lo que un cuerpo hace al lenguaje.

Un texto puede lo que el cuerpo hace al lenguaje.

Un texto no puede nada, hay que hacerlo.

16.

Escuchar es situarse en la proximidad de la distancia.

La justa inclinación del cuerpo.

17.

Alguien habló de timpanizar el pensamiento.

Parece que el pensamiento ha perdido su respiración, su ritmo, y ya no se escucha, solo se ve. Tal vez ni eso. O, más bien, se reconoce o se cristaliza o se atrapa, según nuestro propio interés.

Decir «hooooooooooooo», con la observación de la expresión sonora que sale de la boca, del ritmo de las palabras, de sus *sonoimágenes*, hasta que se convierta en otra cosa. El ritmo como componente fundamental del sonido, las palabras y las imágenes.

Decir «hooooooooooooooooooooo» a otra escucha inclinada. Volcarse en el lenguaje y en la posibilidad de la palabra distanciada, extrañada cada vez más de su significado inicial. Sonarla hasta extrañarla aún más, para volver a escucharla en su aspecto más desnudo y salvaje.

18.

La poética del ritmo, el combate que sostienen, la vida, el ritmo, la voz, el poema, la ética, la política.

Repensar la voz en su singularidad y relacionalidad, en su cuerpo sonoro, como gesto fundamental para agitar la relación entre palabra y política. En la potencia de apertura de esa voz, de esa escucha. De eso que está por venir.

Hay ahí un sonido para ser escuchado y vivificado, palpable, para todos los seres.

Ixiar Rozas Elizalde

Texto com-puesto con fermentaciones de *Sonar la voz. 9 ensayos y 9 partituras* (Consonni, 2022)

Lehendabiziko karta

Primera carta

Iván Gómez • Educaciones

Erakusketa erakusleihoan / Exposición en escaparate



[...]

Marina Garcések zioenez, «bakarrik zaurgarritasun partekatuan oinarrituz zutitu daiteke pentsamendu kementsu bat, gai izango dena bataila zail hau borrokatzeko».

Saiatu naiz nire bataila artistikoa ikasgelara eramaten. Ez dut teknikarik irakatsi huts-hutsean: nire material eta ahuldadeak eramaten nizkien. Sortze ekintzaren ingurune ezegonkorra partekatzen genuen, eta hortik, berriz, orekatsu altxatzen ginen. Funtsean, saiatzeko ginen beste modu batean pentsatzen ikasten, egiten ikasten, gauzetan eraldaketa sustatuz, bizi garen lengoaiaren aldaketa bat eginez, hura gurea ere ez den arren, baina hark gure gorputza zeharkatzen du. Egiten ikasi, eginez ikasi, egitetik pentsatzen ikasi.

Tailer hauek ariketa artistiko bihurtu nahi nituen.

[...]

Decía Marina Garcés que «solo desde la vulnerabilidad compartida puede lanzarse una potencia del pensamiento capaz de librar esta difícil batalla».

